

BEZEROEKIN HARREMANAK

Argi eduki behar da zein harreman mota eduki nahi dugun gure empresa eta bezeroen artean. Gure eskaria telefonoz egitea oso egokia iruditzen zaigu bezeroen harremana sendotzeko. Horretaz gain, banatzaile bakoitzak bere zona izango du beraz bezero bakoitzari beti banatzaile bera joango zaio. Horrek bezeroen konfiantza handituko du, bien harteko harremana ere estutuz. Gure enpresa adinekoetan oinarritua dagoenez, gure ideia nagusia telefonoz harremanetan jartzea da, izan ere, adinekoa den jende gehienak ez daki gaur egungo teknologiak erabiltzen eta guk horrekin bere egunerokoa erreztuko dugu. Gainera, jende helduak guk beraien erosketa kolokatzeko kontratatu ezkerro, banatzaileak erosketa etxean bere tokian gordeko dio bitartean bezeroak nahi badu konbertsazio bat edukiz, bien harteko harreman hestuagoa sortuz.

Gure erosle guztien erosketak ordenagailu batean apuntatuta edukiko ditugu eta horrela gure bezeroak ez dira egiten dituzten erosketetaz arduratu ezta gogoratu behar. Kalkulo-orrian bezero bakoitzaren historiala izango dugu, eta horrek bezeroekiko ezagutza handitzen lagunduko digu eta zerbitzu hobe bat ematea ahalbidetuko digu. Hori gutxi balitz, gure bezeroek lehen erosketan txartel bat eskuratuko dute eta horrela beraien erosketaren prezioa murrizteko aukera izango dute. Lehendabiziko erosketa entregatzeko momentuan kartulinazko txartel bat jasoko du bezeroak. Bertan 10 lauki egongo dira eta egiten dituen erosketa bakoitzeko seilo bat jarriko zaio. 5.erosketan eskatutako produktueteriko bat doainik jasoko dute eta 10.erosketan, berriz, bi. 5 erosketero eskaturiko 2 produktu jasoko dituzte doainik, horrela bezeroak fidel bihurtaraziz.

Gure bezeroak gure zerbitzuekin gustora ez badaude, gurekin hitz egiteko aukera izango dute. Horrela beraien ideiak guk jaso eta gure enpresa hobetu dezakegu, beraien gustura egoteko eta gure enpresa ahalik eta eraginkorra izan dadin.

Gure enpresak dietista baten zerbitzua edukiko du. Lehenengo eskarian dietistak bezeroaren etxera joateko aukera izango du bezeroak eskatzen badu. Eskatuz gero, dietistak bezeroari hilabete bateko menua egingo dio bere eskari eta beharrak kontuan hartuz. Gainera, dietistak hilabetean behin bezeroari deituko dio bere dieta kontrolatzeko, modu horretara hilabetero bezeroarekin harremana mantenduko du.